

## **EHURA TALENTUA ERAKARTZEKO UNIBERTSITATE MASTER DIRULAGUNTZAK. 2025/2026 IKASTURTEA**

### **OINARRIAK**

#### **1.- LEGE BABESA**

Euskal Unibertsitate Sistemari buruzko otsailaren 25eko 3/2004 Legeak dio, 38.3 artikuluan, unibertsitateek beka, kreditu eta ikasketetarako laguntzak emateko beren sistema garatu ahal izango dutela.

Bestalde, UPV/EHUko Estatuetako 16. artikulua araber, UPV/EHUK irakats baldintza egokiak eta eskaintza osagarriak jarriko ditu honako hauek sustatzeko: ikasleen garapen pertsonala, prestakuntza osoa, ikerketa eta garapen zereginetan aritzeko aukera UPV/EHU bertan zein unibertsitateak sortutako erakundeetan edo parte hartzen duenetan, heziketa praktikoa osatzeko bidea eta gizartera eta lan mundura sartzeko era. Horretarako, UPV/EHUK laguntza sistema zabala bultzatuko du.

#### **2.- DEIALDIAREN HELBURUA**

Deialdi honen helburua da 2025/2026 ikasturtean UPV/EHUr talentua erakartzeko unibertsitate master dirulaguntzak ematea.

Ikasleak master bakarrerako eskatu ahal izango du laguntza hau.

#### **3.- LAGUNTZAREN ZENBATEKOA**

Ikasle bakoitzari 3.000 € emango zaizkio.

Ikasle onuradunek, ikasturte bat baino gehiagoko iraupena duen master batean matrikulatuta egonez gero, bigarren urterako dotazio gehigarri bat eskuratu ahal izango dute, betiere aurreko ikasturteko aprobetxamendua egiaztatzen badute, ikasturte horretako kreditu osoak gaindituta. Dotazio gehigarri horren zenbatekoa 1.500 eurokoa izango da, 120 ECTS kredituko masterretarako izan ezik, horietan 3.000 eurokoa izango baita. Diru kopuru hori jaso ahal izateko, ikasleak beste eskabide bat aurkeztu beharko du hurrengo ikasturteko Laguntzen Deialdian, eta eskabidea berriro aukeratua izan beharko da.

75 dirulaguntza emango dira, eta eskaerak ixten diren egunean jakintza-arlo bakoitzean matrikulatutako ikasle-kopuruaren arabera, modu proportzionalan, banatuko dira (Zientziak, Ingeniaritza eta Arkitektura, Osasun Zientziak, Gizarte eta Lege Zientziak, Arteak eta Humanitateak). Aurreikusitako laguntzen kopurua handitu ahal izango da dirulaguntza emateko ebazpenean, aurrekontu-baliabideen arabera. Nolanahi ere, arlo batean laguntzaren onuradun den azken puntuazioan berdinketarik gertatzen bada, diru-laguntzen kopurua handitu egingo da, berdinketa gertatzen den kopuru berean.

#### **4.- LEHIATZAILEEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK**

Laguntza hauek lortu nahi duten hautagaiek honako baldintza hauek bete behar dituzte, eskaerak aurkezteko xedatutako epearen barruan:

- a) UPV/EHUK 2025/2026 ikasturtean eskainitako unibertsitate master batean ikastaro osoan aurreinskripzioa egin izana edo matrikulaturik izatea. ikasturte bat baino gehiagoko iraupena duen master batean matrikulatutako ikasleek matrikulatuta egon behar dute dagokion ikasturteko kreditu guztietan eta, bigarren ikasturterako laguntza eskatuz gero, aurreko ikasturteko kreditu guztiak gaindituta izatea. Nolanahi ere, laguntza esleitzeko eta ordaintzeko unean, laguntza eskatzen den masterreko ikasturte osoan matrikulatuta egon beharko du.

Master Amaierako Lana gainerako kredituak gainditu arte matrikulatu ezin den titulazioetan, Master Amaierako Lan horri dagozkion kredituak barne hartzen ez dituzten matrikulak onartuko dira.

- b) Unibertsitate Masterra osorik UPV/EHUn egitea.
- c) Unibertsitate masterretako ikasketak egiteko beharrezkoa den titulazioaren jabe izatea.
- d) Ezin izango dira laguntza honen onuradun izan unibertsitateko beste master bat egina daukaten ikasleak.
- e) Ez dute laguntza hau jaso UPV/EHUko Atxikitako Ikastegi bateko Unibertsitate Masterreko ikasketetan matrikulatuta dauden ikasleek.
- f) Laguntza eskatu duen ikasleak subentzio edo laguntza publikoak lortzeari dagozkion zigor penal zein administratiborik ez izatea, ez eta honetarako ezgaituko lukeen ezelako debeku legeletan sartuta egon ere.

#### **5.- ESKAERAK AURKEZTEA**

##### **5.1. Eskaerak aurkezteko epea**

Eskaerak 2025eko ekainaren 2tik irailaren 30ra arte aurkez daitezke.

##### **5.2. Aurkezteko modua: digitala**

Eskabidea online egingo da, 6. atalean adierazitako webgunean eskuragarri dagoen formularioa betez eta beharrezko dokumentuak erantsiz.

Eskaera egin ondoren, sistemaren egiaztatzea jasoko da, aurkeztutako dokumentazioa jasotzen duena.

##### **5.3. Beharrezko dokumentazioa**

- a) Online eskaera orria.
- b) NANaren edo pasaportearen fotokopia.
- c) Ikasketen ziurtagiri pertsonala, masterrera sartu ahal izateko eskubidea ematen duen karrerako batuz besteko notarekin, UPV/EHU n egin badu 1988. urtetik aurrera aurkeztu beharrik egongo ez delarik.

Ikasketak atzerriko unibertsitate batean egin dituen ikasleak unibertsitate ikasketen batez besteko noten baliozkotze ziurtagiria, Hezkuntza, Kultura eta Kiroletako Ministerioak emana. Eskaria Internet bidez egin daiteke helbide honetan:

<https://sede.educacion.gob.es/sede/login/inicio.jjsp?idConvocatoria=818>

- d) 7.b) atalean jasotako merezimenduak egiaztatzen dituzten agiriak. Merezimendu horiek alegatu eta egiaztatzeko, webgunean eskuragarri dauden dokumentuak bete beharko dira, eta horien frogagiriak erantsi.
- e) Bestelako unibertsitate masterren jabe ez dela adierazten duen zinpeko deklarazioa (eredua webgunean eskuragarri).
- f) Dokumentazio guztia euskaraz, gaztelaniaz edo ingelesez aurkeztu beharko da.

## 6.- JAKINAREZPENETAKO ETA ARGITARATZEKO BIDEAK

Deialdiari buruzko agiriak eta informazio guztia honako webgunean argitaratuko dira:

<https://www.ehu.eus/eu/web/masterrak-eta-graduondokoak/unibertsitate-masterrak/aurretiko-izen-ematea-eta-matrikula/bekak-eta-laguntzak/laguntza-deialdia-unibertsitate-masterrak-upv-ehun-egiteko>

Webgune horretan argitaratutakoa interesatuei egin beharreko jakinarazpena izango da.

Halaber, eskatzaileek helbide elektroniko bat zehaztu beharko dute laguntza eskatzeko inprimakian, banakako jakinarazpenak bertara igortzeko, behar izanez gero.

## 7.- ESKAERAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

Laguntzak esleitzeko, 4. paragrafoan ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskabideak irizpide hauen arabera antolatuko dira:

- a) Espediente akademikoa (90 puntu gehienez). Masterrerako bidea eman dion unibertsitate titulazioko ikasketen batez besteko kalifikazioa kontutan hartuko da.

Ondorio horietarako, Ingeniaritza eta Arkitekturako ikasketetatik etorritakoen batez besteko notak 1,17 koefizientearengatik biderkatuko dira; Zientzien arloko ikasketetatik etorritakoenak 1,11 koefizientearengatik; eta Osasun-Zientzien arlotik etorritakoenak 1,05 koefizientearengatik.

- b) Ikasleak agertutako bestelako merezimenduak: 10 puntura arte.

- b.1.) Euskara eta atzerriko hizkuntzak jakitea: gehien dela, 3 puntu.

Euskara-ziurtagiriei dagokienez, euskararen ezagutza egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetzeko 2010eko azaroaren 9ko 297 Dekretuan ezarritako baliokidetasunak hartuko dira kontuan; eta, atzerritarrei dagokienez, ziurtagiriek Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzea ezarri behar dute. Erakunde ofizialek emandako ziurtagiriak bakarrik hartuko dira kontuan.

- C2 mailako titulua: 3 puntu.
- C1 mailako titulua: 2 puntu
- B2 mailako titulua: puntu 1.

- b.2.) Nazio eta nazioarte mailako programa eta jarduera akademikoetan parte hartzea: gehien dela, 5 puntu:

- Mugikortasun programak: 2 puntu.
- Curriculumetik kanpoko praktikak enpresetan, ikerguneetan edo unibertsitateetako ikastegietan: 0,25 puntu hilabeteko edo egindako 80 ordu bakoitzeko.
- Eusko Jaurlaritzaren Ikasiker lankidetzak beka edo Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren lankidetzak beka: 2 puntu.

- b.3.) Bestelako merezimenduak: gehien dela, 2 puntu:

- Masterrerako sarbidea ematen duen tituluz gain, beste unibertsitate titulu ofizialak izatea: puntu 1, gehienera.
- Ikasleen ordezkarietarako organoetan parte hartzea: puntu 1, gehienera.

## 8.- ESKABIDEAK IZAPIDETZEA ETA EBALUATZEA

### 8.1. Prozesuaren faseak

Hautaketa-prozesua bi fasetan egingo da.

Lehenengo fasean, 4. paragrafoan ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskabideak zehaztuko dira, eta, horien barruan, bigarren fasera igaroko direnak. Bigarren fasera igaroko dira 3. atalean adierazitako jakintza-arlo bakoitzeko emango diren laguntzen bikoitza. Lehenengo fase honetan kontuan hartu beharreko merezimendua espedientearen batez besteko nota da, 7.a) atalean ezarritakoaren arabera kalkulatua. Eskaerak masterraren jakintza-arloaren arabera ordenatuko dira, eta, arlo bakoitzaren barruan, eskatzailearen batez besteko notaren arabera.

Bigarren fasean, lehenengoa gainditu duten eskabideak baloratuko dira, 7. atalean adierazitako merezimendu guztiak kontuan hartuta, eta, horien barruan, laguntzaren onuradun izango diren eskabideak hautatuko dira jakintza-arlo bakoitzeko.

## **8.2. Faseko behin-behineko ebazpena**

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Graduondokoaren eta Etengabeko Ikaskuntzako Errektoreordetzan aurkeztutako eskabideak berrikusiko dira. Azterketa hori amaitzean, deialdian adierazitako webgunean argitaratuko da 1. faseko behin-behineko ebazpena. Bertan, honako hauek jasoko dira: jakintza-arlo bakoitzeko eman beharreko laguntzen kopurua, onartutako eskabideak eta 4. atalean adierazitako baldintzak ez betetzeagatik baztertutakoak, 7.a) atalean ezarritakoaren arabera kalkulaturako batez besteko nota eta bigarren fasera igartzeko hautatutako pertsonak.

Interesdunek erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute 10 egun balioduneko epean, 1. fasearen behin-behineko ebazpena deialdian adierazitako webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Eskabidea osatu gabe badago edo zuzendu daitezkeen akatsak aurkezten badira, eskatutako dokumentazioa aurkeztu ahal izango da edo akatsak zuzendu ahal izango dira epe beraren barruan. Horretarako, webgunean eskuragarri dagoen online inprimakia bete beharko dute. Alegaziorik aurkezten ez badu, ulertuko da hautagaia ados dagoela ebazpen horretan jasotako datuekin.

## **8.3. Faseko behin betiko ebazpena**

Epe hori igaro eta, hala badagokio, aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, 1. fasearen behin betiko ebazpena webgunean argitaratuko da. Ebazpen honetan zehazten diren eskabideak bakarrik igaroko dira bigarren balorazio-fasera.

## **8.4. Emandako eta ukatutako laguntzen behin-behineko ebazpena**

Bigarren fasean, izangaiek eskabidean alegatu eta egiaztatutako 7. ataleko merezimendu guztien balorazioa kontuan hartuta hautatutako pertsonak. Ez da inola ere onartuko eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren lortutako merezimendurik, ez eta eskabideak aurkezteko epearen barruan alegatu eta egiaztatu ez den merezimendurik ere.

Graduondokoaren eta Etengabeko Ikaskuntzako Errektoreordetzan

merrezimenduak baloratu ondoren, deialdian adierazitako webgunean argitaratuko da emandako eta ukatutako laguntzei buruzko behin-behineko ebazpena. Bertan, eskatzaile guztiek lortutako behin-behineko puntuazioa adieraziko da, bai eta jakintza-arlo bakoitzeko laguntza lortzeko proposatutako eskabideak ere. Interesdunek gehienez 10 egun baliouduneko epea izango dute egokitzen jotzen dituzten alegazioak aurkezteko. Horretarako, webgunean eskuragarri dagoen online inprimakia bete beharko dute. Epe horretan alegaziorik jasotzen ez bada, proposamena onartutzat joko da, eta alegatzeko eskubidea bertan behera utzi dela ulertuko da.

### **8.5. Emandako eta ukatutako laguntzen behin betiko ebazpena**

Epe hori igarota, eta aurkeztutako alegazioak ebatzita, deialdian adierazitako webgunean argitaratuko da emandako eta ukatutako laguntzen behin betiko ebazpena. Bertan, eskatzaile guztiek lortutako behin betiko puntuazioa, onuradunen zerrenda eta ordezkoen zerrenda adieraziko dira. Ordezkoak onuradunen oinordekoak izango dira, baldin eta laguntzei uko egiten bazaie UPV/EHUren 2024ko ekitaldiko aurrekontu-ekitaldia itxi baino lehen eta ordenatzeko puntuazio-hurrenkerari jarraituko zaio handienetik txikienera.

Laguntzak Graduondokoaren eta Etengabeko Ikaskuntzako Errektoreordearen erabakiaren bitartez esleituko dira, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreak 2025eko urtarrilaren 30an emandako Erabakian errektorearen eskumenak eskuordetzeko eta gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko ezarritakoari jarraiki.

### **8.6. Emandako eta ukatutako laguntzen behin betiko ebazpenaren aurkako errekurtsioak**

Administrazio-bidea agortzen duen behin betiko ebazpenaren aurka, honako errekurtsio hauek aurkeztu ahal izango dira, inola ere ez aldi berean:

1.- Nahi izanez gero, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikulua baimentzen duen berraztertze-errekurtsioa, hilabeteko epean, deialdiaren webgunean adierazitako bitartekoetan argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, ebazpena eman duen organo beraren aurrean.

Administrazio-errekurtsio hori aurkeztuz gero, administrazio-isiltasunez ezetsitzat joko da, errekurtsio jarri eta hilabeteko epean ez bada berariazko ebazpenik ematen; kasu horretan, hurrengo paragrafoko jurisdikzio-bidea irekiko da.

2.- Zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa Bilboko Administrazio Auzietako Epaitegietan bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita (Administrazio Auzietako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8.3 eta 46. artikulua).

## **9.- LAGUNTZAREN EZAUGARRIAK ETA ONURADUNEN ERREGIMENA**

9.1. Laguntzaren onuradun izateak ez dakar kontratu bidezko ezelako harremanik UPV/EHUren eta ikaslearen artean.

9.2. Laguntza hau ez da bateragarri honakoekin:

- a) Beste erakunde edo organismo pribatu edo publikoek unibertsitate masterrak egin edo beroni loturiko kostuei (matrikula, joan-etorriak edo egoitza) aurre egiteko emandako beste beka edo laguntzarekin.
- b) Ordu arduraldirik dakarren beste edozein laguntza edo bekarekin.
- c) Soldata-ordainsari izaera daukan edozein diru kopurarekin, betiere, kopuru hori lanbide arteko gutxieneko soldata baino handiago bada.

9.3. Laguntza esleitzen zaionean, ikasle onuradunak ikastaro osoan matrikulaturik egon beharko du (4.a) atalean MALren kredituei buruz xedatutakoa salbu) eta honako dokumentu hauek aurkeztu, deialdiaren webgunean argitaratutako ereduak erabiliz:

- a) Interesdunaren aitortpena, laguntza eta deialdian xedatutako baldintzak eta betebeharrak onartzen direla ziurtatzen duena.
- b) Zinpeko aitortpena, beka jasotzeko bateraezintasunik ez dagoela ziurtatzen duena.
- c) Ikasle onuradunaren banku datuak: erakundea, sukurtsala eta kontu zenbakia, dirulaguntza sartu ahal izateko.

9.4. Dirulaguntza jasoz gero onuradunak konpromisoa dauka unibertsitate masterrari dagokion ikasturte osoa egiteko, eta gutxienez eskola zamaren %70 gainditzeko. Hala egingo ez balu, onuradunaren izaera galduko du eta dirulaguntza baliogabetu egingo da, jasotako zenbatekoak itzuli beharko dituelarik.

Ikasleak ECTS kredituak baliozkotzeko eta/edo aitortzeko eska dezake, masterra gainditzeko behar diren kredituen %15a, gehienez ere.

9.5. Dirulaguntza abenduan ordainduko da, onuradunek 9.3 atalean ezarritako dokumentuak sinatuta aurkeztu ondoren, bai eta laguntza gauzatzeko prozeduran ezarritakoarekin bat etorrira. Prozedura horretan ezarritako betebeharrak haustea onuradun izaera galtzeko arrazoi izango da.

9.6. Laguntza izateak ez du eskubiderik ematen laguntza eskatutako masterraren prezio publikoak ez ordaintzeko.

9.7. Dirulaguntzen onuradunek honako arrazoi hauengatik utziko diote onuradun izateari:

- a) Uko egitea (eredua webgunean eskuragarria).
- b) Unibertsitateak laguntza kentzea interesatuak eginbeharrak ez betetzeagatik, edo laguntza emateko aintzat hartu ziren baldintzak aldatzeagatik.
- c) Sortutako bateraezintasuna.

Onuraduna b) edo c) egoeran izanez gero, espedientea izapidetuko da, eta entzunaldia emango zaio urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearenak, xedatutakoarekin bat.

## **10.- ARAUBIDE JURIDIKOA**

Deialdi honetako oinarrietan zehaztuta ez dagoen guztirako, hauek aplikatuko dira: Diru Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2013 Lege Orokorra eta horren araudia onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua; dirulaguntzei buruzko azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuko VI. atala eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua; UPV/EHUko Unibertsitate Masterren Gestioari buruzko Arautegia; eta urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearena.

## **11. DEIALDI HONEN AURKAKO ERREKURTSOA**

Deialdi honek administrazio bidea amaitzen du, eta beronen kontra administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke Bilboko Administrazio Auzietako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, deialdia argitaratzen den egunetik kontatzen hasita. Hala izanik ere, aukerazko birjartze errekurtsua jarri ahal izango da ebazpena argitaratu eta hilabetearen epean Graduondokoaren eta Etengabeko Ikaskuntzako errektoreordearen aurrean, 39/2015 legearen 123. artikuluaekin bat etorrita.

Leioa, 2025eko Maiatzaren 28a.

Ainhoa Berasaluze Correa  
Graduondokoaren eta Etengabeko Ikaskuntzako Errektoreordea  
Vicerrectora de Posgrado y Aprendizaje Permanente